

1.1.2 GAIAREN LANKETA

> Mundukoak gara



- Mundukoak gara

• Asmatu

Helburuak

- Landutako edukiak eta hizkuntza egiturak birpasatzea.

Prozedura

- Gelako umeekin bi talde handi egin. Talde bakoitzari fitxa bana banatu.
- Fitxan 12 pertsonaia daude. Talde bakoitzak 6 pertsonaiaren aurkezpena egingo du. Umeei pertsonaia bakoitzaren deskripzioa osatu:
 - Izen-abizenak jarri.
 - Zein lanbide daukan erabaki.
 - Nolakoa den esan.
 - Nongoa den eta non bizi den erabaki.
- Behin pertsonaiak asmatzen dituztenean, ahoz beste taldekoei adierazi.